


# PR-Gi 2001

## Nafar bideak

9,4 Km / 3 h 35 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil

Track altuera ( m ) / Altura Track ( m )

Distantzia ( km ) | Distancia ( km )

Luzera | Longitud
9,4 km

Desnibela | Desnivel
+653 m / -449 m

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 2 | 2 | 2 | 3 | 3 h 35 min |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago**<br>Hay más de un factor de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Marcha por caminos de herradura**<br>Mandabideak | **3tik 6 ordura bitarteko ibilaldi jarraia**<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena<br>Continuidad de sendero | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección errónea |
|---|---|---|

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Monolitoa**
Monolito

**Aisia-lekua**
Area recreativa

# PR-Gi 2001

## Nafar bideak

Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugaren hurbiltasunak garai batean bide hauetan izan ohi ziren joan-etorriak ekarriko dizkigu gogora. Baso hauetako bideetan zehar garraiatzen ziren mugaren bi aldeetara kostaldeko eta barruko lurretan ekoizten ziren gaiak. Estraperlistak, lapurrak, mandazainak eta gurdizainak, mikeleteak eta arielak ibili izan dira bide hauek urratzen Erdi-Aroko garaietatik gaurdaino. Ibilera horien testigu galtzada, bidezidor, mikelete-etxe, zubi, babes-leku, ariel-etxe eta abar aurkituko dituzu bidean.

La proximidad de la muga entre Navarra y Gipuzkoa, nos traerá a la memoria las historias que antaño se avenían en estos caminos. El género que se producía tanto en la costa como en el interior, se transportaba hacia un lado como al otro por las sendas que se extienden por estos bosques. Estraperlistas, ladrones, arrieros y carreteros, miqueletes, arbitrios, todos a lo largo del tiempo, desde la Edad Media hasta los tiempos actuales, han ido conformando y desgastando estos caminos. La calzada, sendas, casa de miqueletes, puentes, refugios, casa de arbitrios, etc. los encontraras en el camino testigos de aquellas andanzas.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



LIZARRUSTI: Garai batean arbitrio etxea egon zen lekuan dago gaur egun parketxea kokatua. Arbitrio etxe hauetan Mikeleteek zergak kobratzen zizkieten bertatik igarotzen ziren oinezko, zaldizko edo gurdian zihoazen merkantzia garraiatzaileei. Mikeleteak 1796 urtean sortu ziren arren, 1856 urtetik aurrera hasi ziren Aldundiaren izenean zergak jasotzen. Gainera, beste eginbehar batzuen artean, kontrabandoaren aurka ere lan egin zuten.

LIZARRUSTI: El parketxe está situado en lo que antes era la casa de arbitrios. En estas casas de arbitrios los Miqueletes les cobraban impuestos a los transportistas de mercancías que atravesaban la zona a pie, a caballo o en carro. Aunque el cuerpo de Miqueletes fue creado en 1796, no es hasta 1856 que empiezan a cobrar impuestos para la Diputación. Además, entre otras tareas, también tuvieron competencias en la persecución del contrabando.

b



GAZTAINADI MUGARRATUA: Zuhaitzak mugarratzea, edo lepatzea, iraganean Gipuzkoan, eta Europa osoan, erabilitako teknika bat da. Basoak ustiatzeko modu horren helburu nagusiak animalientzako bazka eta zura lortzea ziren. Teknika hori erabiltzeko arrazoietako bat XVI. mendean itsas armadarako behar zuen egurra lortzeko Koroak egiten zituen desjabetzeetan egon daitekeela uste da; garai hartan zuhaitzak mugarratzeko moduagatik, egurrak itsasgintzarako interesa galtzen zuen.

CASTAÑAR TRASMOCHO: El trasmocho de árboles es una técnica que se utilizaba antaño en Gipuzkoa y en toda Europa. El objetivo principal de ese tipo de gestión era conseguir alimento para los animales y madera. Se piensa que una de las razones para utilizar dicha técnica puede estar en las expropiaciones de madera que la Corona realizó en el S. XVI para la Armada. Por la forma en que se trasmochaban en aquella época, la madera perdía interés para la industria náutica.

c



BERNOAKO (BERRENOAKO) GALTZADA: Izen bereko lepotik igarotzen da Ataundik Nafarroarantz doan mandabide hau. Dirudienez Erdi Aroan sortu zuten eta XIX. menderarte funtzionatu zuen. Mandazainek salgaiekin, kontrabandistek eta, agian, Done Jakueko erromesek erabili zuten haien joan-etorrietarako. Galtzadaren Ataungo zatia Markesaren lurretan zegoenez eta baso hauek eraldaketa gutxi jasan dituztenez, Gipuzkoakoa da egokien mantendu den tartea.

CALZADA DE BERNOA (BERRENOA): Este camino de herradura que va de Ataun a Nafarroa pasa por el collado de su mismo nombre. Según parece, fue creado en la Edad Media y se mantuvo en funcionamiento hasta el S. XIX. Fue utilizado por parte de los arrieros para transportar sus mercancías, por los contrabandistas y, por lo visto, por los peregrinos del Camino de Santiago. Al situarse esta calzada en terrenos de la Marquesa, y sus bosques haber sido poco alterados, el tramo Gipuzkoano es el que mejor se ha conservado.

d



BERNOAKO TRIKUHARRIA: Gipuzkoa eta Nafarroa arteko lotura-lanak betetzen zituen galtzadaren aldamenean erdi ezkutuan dagoen megalitoa da. 1917an aurkitu zen eta, indusketa lanak 1919 egin zituzten Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek. Bertan silexez eginiko laban bat, gezi baten punta eta suharri zati bat aurkitu ziren. Aipaturiko mugan dagoenez harrietako bat mugarri izateko landua dago eta, harlauza honek eta buru egiten duenak gurutze bat dute zizelkatua.

DOLMEN DE BERNOA: Megalito que permanece medio oculto al borde de la calzada que unía Navarra y Gipuzkoa. Se encontró en 1917 y fue excavado 1919 por Aranzadi, Barandiaran y Eguren. En él se encontraron un cuchillo hecho de sílex, una punta de flecha y un fragmento de pedernal. Al estar en la mencionada muga una de las losas esta trabajada a modo de mojón y esta y la losa cabecera tienen tallada una cruz.


arazi ideiak borobiltzen

ATAUNGO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Mendizale Federazioa